Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

5911

EBAZPENA, 2009ko irailaren 28koa, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariarena; horren bitartez, Saitec Ingenieros SA entsegu laborategiari baimena ematen zaio eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko honako arlo hauetan: «hormigoiaren eta haren osagaien kontrola», eta «bideetako zoruak, harrixkak, nahastura bituminosoak eta haien osagaiak».

Apirilaren, 20ko 69/2004 Dekretuaren bidez arautu zen Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan eraikuntzaren kalitatea zaintzeko laborategiak kreditatzeko erabili beharreko jardunbidea. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2004ko maiatzaren 4an, 82. zenbakian.

2008ko abuztuaren 27an, Saitec Ingenieros SA entitateak eskabidea egin zuen eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategiaren kreditazioa lortzeko ondoko arloetan: Egiturazko Hormigoia (EHC) eta Bideetakoak (VSG).

Entitateak aurkeztutako dokumentazioa aztertu rik ikusi zen egokia zela. Hori dela eta, 2009ko irailaren 18an, ikuskapen-bisitaldia egin zitzaion laborategiari, eta bertan egiaztatu ahal izan zen kreditazio-baldintzak bete egiten zirela. Ondoren, akta idatzi zen.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritzari dagokio eraikuntzen kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategien egiaztapenak ematea eta berritzea. Aipatutako Zuzendaritza da apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuak eraikuntzako kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategiei buruz aurkezten duen Erakunde Egiaztatzailea. Guzti hori, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 11.p) artikuluan xedatutakoarekin lotuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sailak sortu, kendu eta aldatzen dituen eta sail horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 10. artikuluan Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari dagokionean xedatutakoarekin lotuta.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

5911

RESOLUCIÓN de 28 de septiembre de 2009, del Director de Vivienda, Innovación y Control, por la que se concede al laboratorio de ensayos Saitec Ingenieros, S.A. la acreditación para el control de calidad de la edificación en las áreas de «control de hormigón y sus componentes» y de «suelos, áridos, mezclas bituminosas y materiales constituyentes en viales».

Mediante Decreto 69/2004, de 20 de abril, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 82, de 4 de mayo de 2004, se regula el procedimiento a seguir en la acreditación de laboratorios de ensayo para el control de calidad de la edificación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La entidad Saitec Ingenieros, S.A. presentó con fecha 27 de agosto de 2009 solicitud de acreditación como laboratorio de ensayo para el control de calidad de la edificación en las áreas Hormigón Estructural (EHC) y Viales (VSG).

Una vez comprobada la documentación presentada por la entidad y encontrada la misma conforme, se procedió con fecha 18 de septiembre de 2009 a la realización de visita de inspección al laboratorio, verificándose en la misma el cumplimiento de las condiciones de acreditación, tras lo cual se levantó el correspondiente acta.

La concesión y renovación de las acreditaciones de laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación corresponde a la Dirección de Vivienda, Innovación y Control del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, como Organismo Acreditador al que se refiere el artículo 4 del Decreto 69/2004, de 20 de abril, sobre acreditación de laboratorios de ensayo para el control de calidad de la edificación, en relación con lo dispuesto en el artículo 11.p) del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y el artículo 10 del Decreto 4/2009, de 8 de mayo, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, relativo al Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Azaldutako guztiagatik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko Saitec Ingenieros SA izeneko entsegu-laborategiari (Zumarren hiribidea 1, Inbisa enpresen parkea, C eraikina, 34. pabilioia, Vitoria-Gasteiz, Araba) kreditazioa ematea ondoko arlo hauetan: «hormigoiaren eta bere osagaien kontrola», 10021EHC09 kodea duena, oinarrizko B entsegutaldeentzat; eta «bideetako zoruak, harrixkak, nahastura bituminosoak eta beren osagaiak», 10021VSG09 kodea duena, oinarrizko B entsegutaldeentzat.

Baimen horren indarraldia bost urtekoa da, eta emate-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik izango da eraginkorra.

Aipatutako indarraldia laburtu egin daiteke apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen diren kasuetako batek baimena baliogabetzea eragiten badu.

Bigarrena.– Apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 19. artikuluarekin bat etorriz, Saitec Ingenieros SA laborategiari kreditazio-tasaren dagokion zenbatekoa ordainaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuan horretarako zehaztutakoaren arabera, hain zuzen.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Etxebizitza sailburuordeari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluari eta hurrengoei jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko irailaren 28a.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria,
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA.

En consecuencia con todo lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Conceder la acreditación al laboratorio de ensayos Saitec Ingenieros, S.A., con domicilio en Avenida de los Olmos, n.º 1, Parque Empresarial Inbisa, Edificio C, Pabellón 34 de Vitoria-Gasteiz (Álava), para el control de calidad de la edificación en las áreas de «control de hormigón y sus componentes», con el código 10021EHC09, para los grupos de ensayos básicos B y de «suelos, áridos, mezclas bituminosas y materiales constituyentes en viales», con el código 10021VSG09, para los grupos de ensayos básicos B.

Dicha acreditación tendrá un periodo de validez de cinco años, y surtirá sus efectos a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la resolución de concesión en el Boletín Oficial del País Vasco.

El mencionado período de validez podrá verse acortado en caso de cancelación de la acreditación, motivada por alguno de los supuestos contemplados en el artículo 12 del Decreto 69/2004, de 20 de abril.

Segundo.– Acordar, de conformidad con el contenido del artículo 19 del Decreto 69/2004, de 20 de abril, el abono por parte del laboratorio Saitec Ingenieros, S.A. del importe correspondiente a la tasa de acreditación que proceda según lo dispuesto a tal efecto en la Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Vivienda, en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de septiembre de 2009.

El Director de Vivienda, Innovación y Control,
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA.